

## **ELKARTEAK:**

Gure enpresak segurtasunaren arloan lan egiten du, eta zerbitzu publikoa eskainiko dugu Gasteizko biztanleei, gure proiektua sustatzen hasteko. Enpresan bost bazkide nagusi gara, bakoitzak enpresari eta produktuari ezaugarri positibo desberdinak eman diezaiozkeenak, produktua modu gorakorran garatzen lagunduko dutenak.

Gure enpresak harritarren segurtasunen alde eta segurtasunerako lan egiten du, eta gure enpresa ekonomikoki eta sozialki hazteko, hainbat enpresa edo erakunderekin lan egin behar dugu.

Teknologian espezializatutako enpresa edo erakunde baten edo gehiagoren laguntza behar dugu. Haren laguntzaz, hatz-markak jasotzeko sistema eta botoia sortu ahal izango ditugu. Kableen sistema eta ibilbide konplexu bat behar dugu korrontea botoitik polizia departamentura eta gure eraikinera eraman ahal izateko. Gainera, hatz-marken makina prestatu ahal izateko, espezialista horien laguntza ere behar dugu.

(Hau izango da enpresaren eraikinean eta polizia departamentuan hartz-markak jasotzeko aurkituko duten makina).



Bestalde, enpresa horiek laguntza eskaintzen badigute, gure enpresak baino denbora gehiago daramate segurtasunarekin laneko enpresen laguntza beharko dugu. Horrela, seguruago egongo gara gure produktua eraginkorra dela eta, gainera, jendea seguruago sentituko litzateke urte gehiagoko esperientzia duten enpresek gurekin lankidetzan jardun dutela baldin badakite. Proseguri laguntza hori eskatuko diogu, lehen aipatu dudan lan-esperientziaren ezaugarriak betetzen duelako. Enpresa honek gure produktuak nola administratu eta bezeroei ze informazio mota eman behar diegu alhoka diezaguke. Gure zerbitzua hobetzen ere lagundu ahal izango liguke, eta gure enpresak, haiek konpentsatzeko, beraien enpresarentzat eta produktuentzat ideia berriak edo hobekuntzak sortzen lagundu ahal izango luke.

Kooperentzia mota bat litzateke. Bi enpresak sektore bererako ari gara lanean, segurtasunerako. Biok sortzen eta banatzen ditugu segurtasunarekin lotutako zerbitzuak eta produktuak, eta, beraz, modu batera edo bestera, lehiakideak gara. Bestalde, kooperazio bat egin dugu, bi enpresei benefizioa ekarriko duena, enpresa hobetzeko.

